A - E - A

21

# MANIFIESTO DE CARACAS

CONSIDERANDO que después de 23 años de acabada la guerra civil que España impuso a los vascos y en la cual sucumbió la flor y nata de la juventud euzkadiana no se vislumbran resultados positivos derivados de la actuación de los vascos.

CONSIDERANDO que la libertad de Euzkadi solamente es posible como resultado del esfuerzo de los vascos.

CONSIDERANDO que los republicanos españoles están dispuestos a celebrar elecciones en España, haciendo caso omiso de los compromisos contraidos con el Gobierno Provisional Autónomo Vasco, de las que resultará un régimen que posiblemente desconozca las libertades vascas conquistadas con sangre.

CONSIDERANDO que el actual Gobierno Provisional Autónomo Vasco no está en capacidad de conducir al Pueblo Vasco a su Libertad por no tener autoridad legal propia sino dimanada del Gobierno Español Republicano, del que es un apéndice legal para una parte solamente del territorio vasco, fuera del cual se encuentran Nabarra, Laburdi y Zuberoa.

CONSIDERANDO que una política basada en la adhesión incondicional a la República Española producirá la separación permanente de Nabarra de la familia vasca.

CONSIDERANDO que sin Nabarra no es posible la Unidad Vasca Confederal en un Régimen de Libertad Nacional y Regional Vasco.

CONSIDERANDO que la lucha por la Libertad Vasca debe seguir adelante.

## MANIFIESTAN

1º La urgencia de formar el Gobierno Nacional Vasco integrado por representantes de todos los organismos, sectores y entidades del Interior y del Exterior que tengan en su programa la Libertad Nacional Vasca.

2º El Gobierno Nacional Vasco sustituirá al actual Gobierno Provisional Autónomo dependiente del Gobierno Republicano Español.

3º Este Gobierno Nacional Vasco no aceptará ninguna solución española que atente contra las libertades vascas o merme los avances conseguidos.

4º El Gobierno Nacional Vasco actuará inmediatamente en los siguientes puntos:

a) Proclamación oficial de que Euzkadi se compone territorialmente de Alaba, Bizbaia, Gipuzkoa, Nabarra y Benabarra, Laburdi y Zuberoa.
b) Designar a Iruña como capital confederal de Euzkadi.
c) Fijar la sede provisional del G. N. V.
d) Decretar el euskera como idioma oficial obligatorio para el Gobierno Nacional Vasco y para todos los organismos que lo forman.
e) Establecer un presupuesto de Gastos e Ingresos para proseguir la lucha.
f) Decretar la contribución obligatoria de todos los vascos del Interior y del Exterior y las sanciones por incumplimiento como reos de alta traición.
g) Emisión de un empréstito con la garantía del Estado Vasco.
h) Creación de los órganos necesarios para la liberación de Euzkadi.
i) Expedir Cartas de Ciudadanía, obligatorias para los vascos del exterior.
j) Exigir de la Santa Sede una definición de la agresión que sufrió nuestro pueblo bajo el nombre de Cruzada y la erradicación del clero y jerarquías antinacionales del territorio vasco.
k) Estudiar los problemas económico-sociales de Euzkadi y sus posibles soluciones teniendo en cuenta lo realizado en los países más avanzados de Europa.
l) Gestionar la incorporación del Estado Vasco a los organismos internacionales y a la Comunidad Europea.

5º) El Gobierno Nacional Vasco convocará un Congreso Nacional, con representantes del Interior y del Exterior que se reunirá anualmente en Aberri-Eguna y ante el cual rendirá cuentas de su labor.

**"PATRIA, EUSKERA Y LIBERTAD"**

25 - X - 1960

A-E-A

# KARAKAS'ko AGIRIA

**IKUSIRIK Españak euskotarroi ekarri eta geure gaztedi ederrena ondatu zigun gudu gogorraren ondoren ogei ta iru urte igaro diran-arren ezertarako ere ez dirala izan euskotarron alegin eta ekiñaldi guztiak:**

**IKUSIRIK Euzkadi'ren azkatasuna euskotar guztion nai eta ekiñaren ondorena baizik ezin ditekela izan:**

**IKUSIRIK españar errepublikanoak gertu daudela Españian auteskundeak egiteko Euzkadi'ko Gobernu Autonomuarekin dauzkaten konpromisu eta egiuneak aintzat artu gabe, eta bear bada gure erriaren eskubideak —odolez eta burrukaz iritxitako eskubideak— ukatuko dituen rejimen bati bide egiteko:**

**IKUSIRIK oraingo Euzko-Jaurlaritza Autonomoak ezin dezakela Euskal-Erria azkatasunera eraman berezko agintaritzarik ez daukalako españar Errepublikaren legetasunetik datorkiona baizik, aren eraskin bat besterik ezpaita Euskalerriaren zati batean agintzeko, eskualde ortatik landa arkitzen diralarik Naparroa, Laburdi eta Zuberoa:**

**IKUSIRIK España'ko Errepublikari itxu-itxuan datxikion politika batek Naparroa betiko erauziko digula eusko -senitartetik:**

**IKUSIRIK Naparroa gabe ezin ditekela batasunik euskal-alkartasunean ezta azkatasunezko rejimen batean ere:**

**IKUSIRIK Eusko-azkatasunaren alderako burrukak aurrera jarraitu bear duela:**

**AGERTZEN DITUGU:**

**1º—Euzko Aberri Jaurlaritza len-bait-len sortzeko daukagun premiña gorría, Euzkadi'ren azkatasuna elburutzat daukaten Euzkadi Barneko eta kanpoko eralguntza, talde ta lagundien ordezkariekin osotua.**

**2n.—Euzko Aberri Jaurlaritzak, Españi'ko gobernu erkaldarretik bere agintaritza duen gaurko Euzko Jaurlaritza Autonomua ordezkatuko du.**

**3n.—Euzko Aberri Jaurlaritza onek ez du iñoiz ere onartuko gure eskubideak murriztu edo askatasuna ukatuko digun soluziñorik españarrengandik.**

**4n.—Euzko Aberri Jaurlaritzak bereala ekingo dio urrengo aipatzen ditugun saillei:**

**a) Mundu guziari aldarrikatuko dio EUZKADI zati auekin osatzen dala: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparra, Benaparra, Laburdi eta Zuberoa'z.**

**b) Naparroako IRUÑA izentatuko du Euzkadi'ko Uri Buru bakar eta nagositzat.**

**c) E. A.J.'ren bein-beineko egoitza aukeratuko du.**

**d) Euskera artuko du izkera ofizial eta bearrezkotzat Euzko Aberri Jaurlaritzan eta aren menpeko eralguntza guztietan.**

**e) Diru sarrera eta irteeraren presupuestu bat erabakiko du azkatasun burrukari gogoz ekiteko.**

**f) Zerga ordaintzera beartuko ditu barneko eta kanpoko euskotar guztiak, ordainduko ez luketenak legez zigortu etoi eta saltzalletzat joaz.**

**g) Enprestitu bat irikiko du Euskal-Estatuaren garantipean.**

**h) Euzko azkatasunaren alde ekiteko egoki ditezken eralguntzak sortuko ditu.**

**i) Erritasun agiriak emango ditu, bearrezkoak atzerriko euskotar guztientzat.**

**j) Batikano'ko agintariei eskatuko die erabaki dezatela zer-nolakoa izan zan gure erriak *Kruzada* izenpean iasan zuen erasoaldi ankerra, eta kendu ditzatela Euzkadi'tik gure azkatasunaren aurka jokatzen duten kleru eta eliz-jerarkiak.**

**k. Euzkadi'ko gizarte eta ekonomi auziakbarrenki aztartuko ditu, baita nola askatu ere, Europa'ko erri aurreratuenen askabideak begien aurrean edukiz.**

**l) Alegiñak egingo ditu Euskal Estatuak erriarteko eralguntzetan sarrera izan dezan baita Europa'ko Alkartasunean ere.**

**5n.—Euzko Aberri Jaurlaritza onek Aberri Batzarre Nagusia deituko du Euzkadi barruko eta kanpoko ordezkariekin osatzeko. Batzarre ori urtero egingo da Aberri Egunean eta Eusko Aberri Jaurlaritzak bere lan eta ekintzaren kontu-errazoiak antxen emango ditu.**

**"ABERRI, EUSKERA TA AZKATASUNA"**

1960 - X - 25